
PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Otsopotrilloko Leizea

Otsopotrilloko Leizea

Urbasa Mendilerroan dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Urbasako Mendilerroa non dagoen
ikus dezakezu.

Leizea*:
Lurrean dagoen
zulo oso sakon bat da.

1936ko Estatu Kolpea eta gero frankistek Otsopotrilloko **Leizea*** asko erabili zuten haien ideia politikoengatik hiltzen zituzten pertsonen gorpuak bertatik botatzeko.

Frankistek leizearen
13 pertsonen gorpuak bota zituzten.
Pertsona hauek herri hauetakoak ziren:

- Altsasua
- Ekala
- Olazti

- Urdiain
- Ziordia

1979. urtean senideek
desobiratze goiztiar bat egin zuten
eta haien gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Desobiratze goiztiarrak Nafarroan
1980. urtea baino lehen
egin ziren desobiratzeak dira.

1982. urtean senideek gorpuzki hauek
metalezko kutxa batean jaso ahal izan zituzten.

1980. urtean Jose Ramon Andak
Otsopotrilloko Leizearen Memoriala egin zuen
bertan hil zituzten pertsonak gogorarazteko.

2016 eta 2017. Urteetan
Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Zientzien Elkarteak
2 desobiratze egin zituzten
eta 7 pertsonen gorpuzkiak identifikatu zituzten.

Urtero inguruko udaletxeek
omenaldi bat egiten dute
Urbasako Mendilerroan hil zituzten
biktima guztiak gogorarazteko.

Hemen Otsopotrilloko Leizearen Memorialaren
argazki bat ikus dezakezu:

